

INTERES-GATAZKARIK EZ DAGOELA JASOTZEKO ADIERAZPENA

EITBtik KANPOKO LANGILEENTZAT

Espedientea:

Kontratua

Goian aipatutako kontratazio prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, honako hau adierazi dute espedientearen kontratista/azpikontratista adjudikaziodun gisa behean sinatu dutenek:

Lehenengoa.- Honako honen berri izan dute:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 61.3 artikulua (EBren Finantza Erregelamendua) honela dio: «Interes-gatazka egongo da pertsona baten eginkizunen jardun inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean bere familiarekin, bizitza sentimentalekin, kideatasun politiko edo nazionalekin, interes ekonomikoekin edo interes pertsonalarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duen edozein arrazoiengatik».

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen «Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» edukia duen 64. artikulua helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzailerak guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.

3. Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikulua arabera, hauek dira interes-gatazka egon daitekeen egoerak:

- a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaiokie; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
- b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, EITBn inplikaturako edozein arduradunekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkari edo mandataritzarako.
- c) Aurreko letran aipaturiko pertsonaren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
- e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

Bigarrena- Ez daude Europar Batasunaren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkatzat jo daitekeen edozein egoeratan, eta ez dutela lizitazio-prozedurari eragin diezaiokeen eta lehen aipatu diren abstentzio-arrazoirik.

Hirugarrena.- Interes-gatazka osatzen duten modalitateen arteko ezberdintasunen jakitun, ez dute administrazio-prozedura honetan itxurazko interes-gatazka potentzial edo erreal baten berri.

Laugarrena.- Administrazio-prozedura mota ikusita, ez dute hurbileko etorkizunean sortu daitekeen itxurazko interes-gatazka potentzial edo erreal sortu dezakeen inguruabarrik.

Bosgarrena.- Konpromisoa hartzen dute kontratazio-organoari/ebaluazio-batzordeari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen interes-gatazka edo abstentzio-arrazoi oro. Bestalde, abstenitzeko betebeharra beregan hartuko du horrelako kasuren bat gertatuko balitz.

Seigarrena.- Badakite interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioak eta ondorio administratiboak eta judizialak ekarriko dituela.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)